

HELDUENTZAKO
NAZIOARTEKO
TXOTXONGILOEN

XIV. MOSTRA MUESTRA

INTERNACIONAL
de TÍTERES PARA
ADULTOS



"THE GREATEST &
2ND SMALLEST CIRCUS
IN THE WORLD"

BRUNETTE BROS
Dinamarca

"BORIS & INGRID"

2 THEATER
Inglaterra / Euskal Herria

"WELCOME"

IÑAKI MATA
Euskal Herria

"JOJO"

Cía. YTUQUEPINTAS
Catalunya

"SUEÑOS 1"

ROBERTO WHITE
Argentina

"ALICIA y LAS
CIUDADES
INVISIBLES"

ONÍRICA MECÁNICA
Murcia

"TRABAJOS DE
INTERIOR"

BEHIBI'S
Euskal Herria



Taun Taun Teatroak Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XIII. Mostra aurkezten du. Ekimena bienala da, eta 1991an egin zen lehenengo aldiz. Harrez geroztik, Euskal Herriko eta Estatuko antzerti panoraman huts interesgarri bat bete nahi izan du. Izan ere, Bergarakoa ikuslego heldu batentzat pentsatutako txotxongiloen Estatuko lehenengo mostra da.

Nabarmena da jaialdiaren jarraitutasuna. Handia ez izan arren, bere ibilbidean zehar mundu guztiko herrialdeetatik heldutako 140 artista eta konpainia baino gehiagok bisitatu dute. Besteak beste, honako hauek pasa dira Bergaratik: **Richard Bradshaw (Australia), Títeres de Yangzhou (Txina), Claudio Cinelli (Italia), Green Ginger (Erresuma Batua), Two Hands (Alemania), Hugo e Inés (Peru), Diego Stirman (Argentina), Valeria Guglietti (Italia), Espejo Negro (España), Stephen Mottram (Erresuma Batua).**

Aurten, aurreko ediziotan gertatu den legez, ikuskizun ezberdinekin espazio ezberdinetan goatzeko parada izango da. Hala, antzoki, gaztetxe edo kalean beren lanak eszenaratuko dituzte konpainiak, pertsona guztiei heltzeko xedearekin.

Mostra txiki eta “familiarra” izanik, esperientziak elkartrukatzeko topaketa gunen bilakatzen da, izan ere egun batzuetan jatorri ezberdinetako artistak elkarrekin bizitzen dira. Taun Teatroarentzat ere esperientzia aberasgarria da, eta baita eskuzabaltasunez kolaboratzen duten Bergarako talde eta pertsonentzat ere. Beren laguntza gabe mostrak ez luke daukan kalitate ona mantenduko.

Aurreko ediziotan bezala, aurtengoan ere ikastaro espezializatuak eta erakusketak izango dira.

Jaialdi berezi bat da, magia osagai garrantzitsuarekin. Bertatik ez da inor axolagabe ateratzen. Ez bisita egiten duten konpainiak, ez bertako artistak, eta ezta ikusleak ere. Azken hauen artean ohizkoak geroz eta gehiago direlarik. Eszenatokietan gertatzen denarekin xarmatzeko eta esperimintatzeko aukera paregabea da. Hitzordu guztiz gomendagarria.

EGITARAUA

Urriak 25, osteguna

20:00 Kalean zehar

“Brunette Bros Bozos Brass”

Brunette Bros

Danimarka

“Brunette Bros” konpainiako pailazo, titiritero eta artistek Arrizuriaga Parkeko zirku kanpamentua utzi eta beren erokeri musikal zoragarrira eramango gaituzte. Hala, kale eta plazetan murgilduko dira eta herria hartuko dute, ia dena posible den beste garaiko toki batean bilakatzeko.

<http://www.brunettebros.dk>

Urriak 26, ostirala

19:00 & 22:00 Arrizuriaga Parkea

“The gratest and second smallest circus in the world”

“Munduko zirku hoberena eta bigarren txikiena”

Brunette Bros

Danimarka

Gure artean mostra guztian zehar egongo den **BrunetteBros** konpainiak umorezko ikuskizun bitxia aurkeztuko du. Txotxongilo eta aktoreak, zeruertz mugagabeko bidaiarien bizitzarekin nekatuta, babarrun zopa jatearekin eta haize instrumentuekin nazkatuta, saio ahaztezin baten protagonista izango dira.

Izan ere, munduko hoberena eta bigarren txikiena den zirku honek bere kanpamentu ibilitaria instalatzen duenean, kolorezko kamioiarekin, gerra osteko osagarriekin eta ahaztutako jostailuekin, beste garai bateko ferien munduak argia ikusten du. Klown-ek, musikariek eta txotxongiloek ikusleak hartu eta iruzurra, erokeria eta aldrebeskeria nagusi diren lurraldera eramango dituzte.

Eszenografia “CapraGrassa” kamioia da, hiru eszenatokiz osatutako feria garai batean bilakatzen dena. Bertan, 50 artista baino gehiago gailentzen dira eta, besteak beste, honakoak irudikatzen dituzte: animalien erakusketa, munstroen “side show” bikoitza, edo kalitate mundialeko zirku denda, non aire printzesek eta kainoi gizonak ariketa akrobatiko harrigarriekin eta eszenaratze txundigarri eta miresgarriekin gozarazten duten.

Gainera, **“Munduko zirku hoberena eta bigarren txikiena”** den honetan “Will, Peg, Albertinious & the Amazing Indian” pailazoek egiten dute lan. Beraiek ikusleak liluratu eta zirkuaren atzealdera eramango dituzte, bizitza eta patuak ezagutu eta aukera ditzaten.

Brunette Bros entretenimendu enpresa bat da, “bitxiki arraroa”. Elkarte gisa duela 13 urte sortu zen eta, bertako partaideek arrakasta handiz lortu dute irmotasun daniarra eta hegoaldeko jitea fusionatzea. Elkartasun bitxi honi esker, antzerki talde paregabea sortzea lortu dute.

Brunette Bros elkarte kulturala da eta Danimarkan dauka bere egoitza. Europa guztian zehar ibili da ikuskizun eta koprodukzio ezberdinekin.

Oso ongi osatutako kaos baten bidez, entretenimendu garbietetik, txotxongilo antzerki zikinetik eta musika-unibertso indartsu batetik abiatuta, konpainiak adierazpen paregabe eta dotorea dauka.

Elkarteak kalitatezko profesional talde oparoa dauka: zuzendari artistikoak, eszenografoak, titiriteroak, jostunak, konpositoreak edo artisauak. Elkarrekin, plataforma multikultural aparta osatzen dute.

FITXA ARTISTIKOA

Jatorrizko Ideia: **The Brunette Bros.**

Peformerrak / Titiriteroak / Pailazoak: **Maria Solà, Emanuele Fiandri, Lisa Skjøth Madsen & Luca Tapino**

Re-Zuzendaria: **Adrian Schvarzstein**

Argien diseinatzailea / teknikoa: **Ivan Tomasevic**

Eszenografoak: **Anna Mcneil & The Brunette Bros**

Ingeniari Sartistikoak: **Giorgio Benotto & The Brunette Bros**

Txotxongiloen egileak: **Oriol Pont & The Brunette Bros**

<http://www.brunettebros.dk>

20:00 Seminarixoa

“Boris & Ingrid”

2Theatre

Londres

- Epaimahaiaren Sari Berezia, London Solo Festival 2012.

2Theatre antzerki konpainia entzutetsu eta saritua da. Marcel Marceauk eta Cirque du Soleil-eko profesionalek trebatu dituzte konpainiako kideak. Cal McCrystal komedia zuzendari entzutetsuarekin elkarlanean **“Boris & Ingrid”** antzezlanaz sortu dute. Bertan, denboraren ezinbestekotasuna, bakardadea, eta ezberdina izatearen plazerra esploratzen dute.

Antzerki fisikoaren bidez, bikote etorkin baten istorioa kontatzen duen pantomima absurdo bat da. Ikuskizunak askotariko lurraldeak miatzen ditu: groteskoa, komedia, mimoa, txotxongiloak eta maskarak. Guzti horien bitartez, zahartzaroaren zailtasun propioak ulertzen lagunduko digute. Umore zentzu bihurri baten bidez, zoriontsu izaten lagunduko digute, baita heriotza gertu somatzen dugunean ere. **2Theatre**k Londresen du egoitza, eta 2011 urtean sortu zen Txema Perez eta Svetlana Bibaren eskutik. Biak, London International School of Performing Arts eskolan graduatuak. Nazioarteko konpainia honek antzerki fisikoa, clown, txotxongiloak, mimoa eta dantza nahasten dituzten diziplina anitzeko ikuskizunak sortzen ditu. Mugak ezabatzea eta herrialdeak gerturatzea da lortu nahi duen helburu nagusia. Edozein gizaki elkartzeko gai diren gaiak jorratuz, **2Theatre**k mundu guztia konektatzeko gai den antzerki mota bat sortu nahi du.

FITXA ARTISTIKOA

Sortzaileak: **Lana Biba & Txema Perez**

Zuzendaritza: **Cal McCrystal**

Interpreteak: **Txema Perez y Svetlana Biba**

Musika: **Birdradio**

www.2theatre.com

[“Boris & Ingrid”. Aurrerakina.](#)

22:30 Gaztetxe
“Trabajos de interior”
Behibí’s
Pasaia (Gipuzkoa)

- Munduko estreinaldia.
- Konpainiak helduentzat egiten duen bigarren lana.

Benetan nihilista den emakume bat, kabestruekin bizi dela konturatzen da, hamster gurpil batetan bezala. Alferkeri existentzialaren erruz aberetuta dagoela, mundu anitz, urduri, kaotiko eta zehaztugabe batean bizi dela. Berea zentzurik gabeko existentzia dela, estua eta estresatua.

Hala, lanari ekiten dio: plastikoak eta kanaberak erabiliz instalazioak egiten ditu, bere eskeletoarekin mintzatzen da, bere aldartea eta bere kanpoko itxura uztartzen saiatzen da; pozik jartzen da, funky, konspiranoika eta patafisika...

Jakin badaki funtsezkoa ez dela modan egongo, eta askorentzat ñoña bat izan arren, gelditu gabe beste bide batzuk bilatzen ditu. Gogaitasun existentziala bilaketa motore gisa hartuta, bizitzearen funtsezko ariketa denak emanda esploratu nahi du.

Behibí’s konpainia sentimendu kreatibo baten garapen prozesuaren emaitza da, antzerkia egitearen beharrarena.

Garai ezberdinak igaro ondoren, 1992 urteaz geroztik Patricia Franco Heras-en proiektu kreatibo heldu eta profesionala da.

Patriciak pertsona bakarreko ikuskizunak sortzen ditu arte eszenikoetako profesional ezberdinen elkarlanari esker: zuzendariak, gidoilariak, eszenografoak, artisauak, musikariak, teknikoak, ekoizleak...

Eguneroko egoeren bitartez azaltzen dituen gaiak, kontzientzia eta pentsamendu kritikoa sortu nahi dute. Hala, antzezteaz gain, zirkuitu profesionaletan, antzerki sare ofizial eta alternatiboetan eta hemengo eta nazioarteko jaialdietan ezaguna izateaz gain, euskal hezkuntza-erakunde publiko ezberdinekin lan egiten du.

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza eta testua: **Espe López**; Aktorea: **Patricia Franco Heras**; Espazio Eszenikoa: **Itxaso Azkarate**; Musika: **Juan Zulaika**; Argia eta soinua: **Itziar Bote**; Ekoizpena: **Behibí’s**.

<http://www.behibis.com>

Urriak 27, larunbata

12.30 Kalean zehar

“Welcome!”

Iñaki Mata

Antzuola (Gipuzkoa)

“Welcome!” poesia bisuala oinarri duen lan ibiltaria da, barneko edozein migrazio prozesuri ongietorria egiteko modu bat, enpatiaren hegaldi transhumantea, beharraren bidez sortzen den lotura eta hausnarketa. Bizitzan zehar igarotzen ari den motxila nomada batek aukeren bidaia batean parte hartzeko gonbita egiten du.

Iñaki Mata euskal aktore, sortzaile eta titiriteroa da. **Taun Taun Teatroa** edo Kilimiliklik bezalako konpainietan parte hartu ondoren, ikerketa lan propiotan konpainia independente gisa aurkeztea erabakitzen du. Hala, erabaki honetatik **“Barreras”** izeneko lan hiritarra sortzen da, eta, bertan, objektua, txotxongiloa eta clown-a uztartzen ditu. **“Barreras”** 20 herrialde baino gehiagotan aurkezu du eta **“H,02topoz”** lanaran hazia bilakatu da. 2017an, eta bere arbasoen inguruan egindako ikerketa bati esker, **“Welcome!”** sortzen du, bere hirugarren lana.

FITXA ARTISTIKOA

Idea, zuzendaritza eta errealizazioa: **Iñaki Mata Hoz**

Manipulazioa: **Iñaki Mata Hoz**

Musika: **Jorge Montero Valera**

Panpinaren sorkuntza: **Alberto Saabedra / Iñaki Mata**

Generoa: **Poesia bisuala**

Lengoaia: **Bisuala / Testu gabe**

Publikoa: **Familiarra**

Iraupena: **40-45min.**

[Ikuskizunaren aurrerakina.](#)

19:00 & 22:00 Arrizuriaga Parkea

“The gratest and second smallest circus in the world”

“Munduko zirku hoberena eta bigarren txikiena”

Brunette Bros

Danimarka

Gure artean mostra guztian zehar egongo den **BrunetteBros** konpainiak umorezko ikuskizun bitxia aurkeztuko du. Txotxongilo eta aktoreak, zeruertz mugagabeko bidaiarien bizitzarekin nekatuta, babarrun zopa jatearekin eta haize instrumentuekin nazkatuta, saio ahaztezin baten protagonista izango dira.

Izan ere, munduko hoberena eta bigarren txikiena den zirku honek bere kanpamentu ibiltaria instalatzen duenean, kolorezko kamioiarekin, gerra osteko osagarriekin eta ahaztutako jostailuekin, beste garai bateko ferien munduak argia

ikusten du. Klown-ek, musikariek eta txotxongiloek ikusleak hartu eta iruzurra, erokeria eta aldrebeskeria nagusi diren lurraldera eramango dituzte.

Eszenografia “CapraGrassa” kamioia da, hiru eszenatokiz osatutako feria garai batean bilakatzen dena. Bertan, 50 artista baino gehiago gailentzen dira eta, besteak beste, honakoak irudikatzen dituzte: animalien erakusketa, munstroen “side show” bikoitza, edo kalitate mundialeko zirku denda, non aire printzesek eta kainoi gizonek ariketa akrobatiko harrigarriekin eta eszenaratze txundigarri eta miresgarriekin gozarazten duten.

Gainera, “**Munduko zirku hoberena eta bigarren txikiena**” den honetan “Will, Peg, Albertinious & the Amazing Indian” pailazoek egiten dute lan. Beraiek ikusleak liluratu eta zirkuaren atzealdera eramango dituzte, bizitza eta patuak ezagutu eta aukera ditzaten.

Brunette Bros entretenimendu enpresa bat da, “bitxiki arraroa”. Elkarte gisa duela 13 urte sortu zen eta, bertako partaideek arrakasta handiz lortu dute irmotasun daniarra eta hegoaldeko jitea fusioatzea. Elkartasun bitxi honi esker, antzerki talde paregabea sortzea lortu dute.

Brunette Bros elkarte kulturala da eta Danimarkan dauka bere egoitza. Europa guztian zehar ibili da ikuskizun eta koprodukzio ezberdinekin.

Oso ongi osatutako kaos baten bidez, entretenimendu garbienetik, txotxongilo antzerki zikinetik eta musika-unibertso indartsu batetik abiatuta, konpainiak adierazpen paregabe eta dotorea dauka.

Elkarteak kalitatezko profesional talde oparoa dauka: zuzendari artistikoak, eszenografoak, titiriteroak, jostunak, konpositoreak edo artisauak. Elkarrekin, plataforma multikultural aparta osatzen dute.

FITXA ARTISTIKOA

Jatorrizko Ideia: **The Brunette Bros.**

Peformerrak / Titiriteroak / Pailazoak: **Maria Solà, Emanuele Fiandri, Lisa**

Skjøth Madsen & Luca Tapino

Re-Zuzendaria: **Adrian Schvarzstein**

Argien diseinatzailea / teknikoa: **Ivan Tomasevic**

Eszenografoak: **Anna Mcneil & The Brunette Bros**

Ingeniari Sartistikoak: **Giorgio Benotto & The Brunette Bros**

Txotxongiloen egileak: **Oriol Pont & The Brunette Bros**

<http://www.brunettebros.dk>

20:00 Seminarixoa
“Alicia y las ciudades invisibles”
Onírca Mecánica
Murtzia

- Proposamen Berritzaileenari Saria. Fira de Lleida 2018.

“Alicia y las ciudades invisibles” Lewis Carroll-en “Aliciaren abenturak lurralde miresgarrian” klasikoaren moldaketa aske eta garaikidea da, gure irudimenean soilik existitzern diren unibertso majikoak eta hiri ikusezinak ezagutzera eramango gaituena.

“Alicia” hau mundua ezagutzeko haur jakinminetik abiatzen da. Ustekabea, eskala-proporzioa eta jolasteko beharra dira proposamenaren oinarriak. Guzti hauek Aliciak bisitatzen dituen munduak bizitzera eramango gaituzte, eta txikienen interesa eta sormena piztuko dituzte.

Konpainiak labirintoaren ideia toki arrotz eta magiko gisa lantzen du. Bertan, Alicia dago eta irteera aurkitu beharko du. Bere bidaiari zehar, haur adoretuak pertsonaia harrigarria ezagutzeko ditu: Beldarra, Cheshire Katua, Bihotzen Erregina, Untxi Txuria... Gainera, Aliciak amestutako paisaiak aurkituko ditu, eta, nola ez, lege gabeko mundu batean hazi eta txikiagotuko da.

Orain artean Aliciaren egokitzapen asko egin dira, baina **Onírca Mecánica** berrikuspen guztiz ezberdina eskaintzen du. Lengoia garaikide batetik abiatuta eta konpainiaren ikerketa lerroa jarraituz, **“Alicia y las ciudades invisibles”** ikuskizunak mundu herrigarri eta zoragarri batean murgiltzeko aukera eskaintzen digu.

Konpainiak txotxongilo eta objektuen manipulazioaren bidez sortzen du irudimenezko mundu hau. Hala, eszena ezberdinetan zehar, Aliciaren unibertsoak ezagutzeko aukera izango dugu. Maketak eta mikro kamerak ere erabiltzen ditu, pertsonaia nagusia mugitzen den eskala eta proportzio ezberdinetan lan egiten duelarik.

Alicia birziklatutako elementuekin sortutako txotxongilo bat bada. Baina baditu baita osagarri teknologikoagoak: pertsonaiaren maskara irudikatzen duen Ipad bat edo soinu gona bat. Txotxongiloek forma eta tamaina ezberdinak izango dituzte.

Hiru manipulatuzaileek sortuko dituzte obraren irudimenezko unibertsoak. Mundu harrigarriak bertan sortuak elementu sinple hauekin: gatza, plastikoak, harriak, alambrea... Unibertsoak zuzenean egiten dira, soinu eta irudi ezberdinak sortuz. Kamerekin zuzenean grabatu eta emitituko den “sormen” plastiko hori eszena bakoitzeko eszenografia izango da. Eszenatoki horren gainean mugituko dira konpainiak sortu eta manipulatuak txotxongiloak.

FITXA ARTISTIKOA

Sorkuntza: **Jesús Nieto**

Alicia: **Alicia Bernal**

Aktore-manipulatzailleak: **Brígida Molina, Enrique de la Cañina, Estela Santos**

Espazio soinudun eta musikala: **Pedro Quirao**

Eszenografia: **Angel Haro, Jesus Nieto, Domingo Llor**

Argiak : **Jesús Nieto**

<http://www.oniricamecanica.com>

23:00 San Martin Plaza

“Jojo”

Ytuquepintas

Bartzelona

“**Jojo**”, konpainiaren laugarren ikuskizuna, poesia bisuala oinarri duen eta testurik ez duen proposamen eszeniko ederra da. Bertan, abentura harrigarri bat kontatzen digute, **Ytuquepintas** konpainian ohizkoa den hondarraren teknika eta txotxongiloen manipulazioa erabiliz. Horretarako, taldeak Yanisbel Martínez eta Enrique Lanz profesionalen aholkularitza artistikoa jaso du. Biak Granadako Etcetera txotxongilo talde entzutetsuaren kide dira.

Ikuskizunak zuzeneko musika propioa dauka eta “**Jojo**”, edozein motatako ikusleentzat egokia den espektakulu bezala errotzen du.

Konpainiak Jojo izena aukeratu zuen bere gatibutasunetik askatutako lehen orangutanaren omenez. Erreskatatze horrek Animal Rescue nazioarteko egitasmoaren hasiera suposatu zuen. Animal Rescue gobernuz kanpoko erakunde bat da, eta gatibu bizi diren animaliak aske uzteko lan egiten du. Egun, Jojo bizirik dago eta gizonezko orangutan handi bat da.

Borja Gonzalez hondarrarekin lanea ikusteak lehen unetik txundituta gelditzea suposatzen du. Hondarrez betetako argi mahai bat, eta pantaila handi batean irudiak proiektatzen dituen goiko kamera bat, izugarri kreatiboa den marrazkilari honen tresna bakarrak dira. Formak sortzen doaz, beren esanahia asmatzen doa eta istorioak, musikaz eta txotxongiloz lagundurik, bakarrik azaltzen du bere burua. Ezer gutxiago behar da erraztasunez ulertzeko.

FITXA ARTISTIKOA

Konpainia: **Ytuquepintas**

Gidoia eta zuzendaritza: **Borja González**

Akonpainamendu artistikoa: **Enrique Lanz y Yanisbel Martínez**

Aktoreak: **Borja González**, artea hondarrean; **Alberto Munilla**, manipulatzailea;

Roc Sala, musikaria: teklak eta hang

Musika konposizioa: **Roc Sala**

Argien diseinua: **Quim Aragón**

Soinuaren diseinua: **Ton Mentrut**

Txotxongiloen sorkuntza: **Borja González y Alberto Munilla**

Ekoizpena: **Quim Aragón (Camaleònica Produccions)**

<http://borjasandartist.com/>

Igandea, urriak 28

12:30 & 18:00 Arrizuriaga Parkea

“The gratest and second smallest circus in the world”

“Munduko zirku hoberena eta bigarren txikiena”

Brunette Bros

Danimarka

Gure artean mostra guztian zehar egongo den **BrunetteBros** konpainiak umorezko ikuskizun bitxia aurkeztuko du. Txotxongilo eta aktoreak, zeruertz mugagabeko bidaiarien bizitzarekin nekatuta, babarrun zopa jatearekin eta haize instrumentuekin nazkatuta, saio ahaztezin baten protagonista izango dira.

Izan ere, munduko hoberena eta bigarren txikiena den zirku honek bere kanpamentu ibilitaria instalatzen duenean, kolorezko kamioiarekin, gerra osteko osagarriekin eta ahaztutako jostailuekin, beste garai bateko ferien munduak argia ikusten du. Klown-ek, musikariek eta txotxongiloek ikusleak hartu eta iruzurra, erokeria eta aldrebeskeria nagusi diren lurraldera eramango dituzte.

Eszenografia “CapraGrassa” kamioia da, hiru eszenatokiz osatutako feria garai batean bilakatzen dena. Bertan, 50 artista baino gehiago gailentzen dira eta, besteak beste, honakoak irudikatzen dituzte: animalien erakusketa, munstroen “side show” bikoitza, edo kalitate mundialeko zirku denda, non aire printzesek eta kainoi gizonak ariketa akrobatiko harrigarriekin eta eszenaratze txundigarri eta miresgarriekin gozarazten duten.

Gainera, **“Munduko zirku hoberena eta bigarren txikiena”** den honetan “Will, Peg, Albertinious & the Amazing Indian” pailazoek egiten dute lan. Beraiek ikusleak liluratu eta zirkuaren atzealdera eramango dituzte, bizitza eta patuak ezagutu eta aukera ditzaten.

Brunette Bros entretenimendu enpresa bat da, “bitxiki arraroa”. Elkarte gisa duela 13 urte sortu zen eta, bertako partaideek arrakasta handiz lortu dute irmotasun daniarra eta hegoaldeko jitea fusionatzea. Elkartasun bitxi honi esker, antzerki talde paregabea sortzea lortu dute.

Brunette Bros elkarte kulturala da eta Danimarkan dauka bere egoitza. Europa guztian zehar ibili da ikuskizun eta koprodukzio ezberdinekin.

Oso ongi osatutako kaos baten bidez, entretenimendu garbientetik, txotxongilo antzerki zikinetik eta musika-unibertso indartsu batetik abiatuta, konpainiak adierazpen paregabe eta dotorea dauka.

Elkarteak kalitatezko profesional talde oparoa dauka: zuzendari artistikoak, eszenografoak, titiriteroak, jostunak, konpositoreak edo artisauak. Elkarrekin, plataforma multikultural aparta osatzen dute.

FITXA ARTISTIKOA

Jatorrizko Ideia: **The Brunette Bros.**

Peformerrak / Titiriteroak / Pailazoak: **Maria Solà, Emanuele Fiandri, Lisa Skjøth Madsen & Luca Tapino**

Re-Zuzendaria: **Adrian Schvarzstein**

Argien diseinatzailea / teknikoa: **Ivan Tomasevic**

Eszenografoak: **Anna Mcneil & The Brunette Bros**

Ingeniari Sartistikoak: **Giorgio Benotto & The Brunette Bros**

Txotxongiloen egileak: **Oriol Pont & The Brunette Bros**

<http://www.brunettebros.dk>

20:00 Seminarixoa

“Sueños 1”

Roberto White

Rosario (Argentina)

“Sueños 1” Robert White argentinarren bigarren lana da. Honetan, antzerki fisikoa, clown lana eta objektuen manipulazioa erabiltzen ditu oso etxe berezi baten barnean gertatzen diren gauzak kontatzeko. Etxe hau berak darama, buru gainean, maskara gisa.

Izan ere, etxea ikuskizun baten barnean kokatzen den metafora da: *“Nor baiten buruan dagoen etxe mentala, non, pertsona guztiek ezagutzen dituzten eguneroko arazoak bizi diren”.*

“Sueños 1” TOPIC, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroarekin elkarlanean sortutako ikuskizuna da. Eta Taiwan, Espainia eta Argentinako toki ezberdinetan eszenaratu da.

Roberto White, argentinar clown eta titiriteroa, Limako Pataclaun clown eta inprobisazioaren eskolan egin zituen ikasketak. Bestek beste, Santa Rodilla konpainiaren sortzaileetako bat izan zen eta, beranduago, “Teatro dos Mundos” konpainia sortu zuen Malgosia Szkanderarekin.

Egun, bakarrik biratzen du “Criaturas Particulares” ikuskizunarekin. Espektakulua nazioarteko 30 jaialdi baino gehiagotan egon da eta, besteak beste, honako golardo hauek jaso ditu: Drac d’or (Lleidako Fira, 2012), Tolosako Txotxongilo Jaialdiko lehen saria.

Zuzendari gisa, Whitek Costa Rica-ko Premio Nacional de las Artes saria jaso du, “Romeo y Julieta” lanagatik.

FITXA ARTISTIKOA:

Zuzendaritza: **Roberto White, Pablo Tendela, Raul Bruschini.** Teknika:
Objektuak, manipulazio zuzena, maskarak...

[Ikuskizunaren aurrerakina](#)

INFORMAZIO GEHIAGO

Teresa Sala
Niteresa75@gmail.com
650 038 731